## ZIZURKILGO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, finko eta behinbetirako altxa da 2004ko abuztuaren 30ean Udal Osoko Bilkurak hartutako erabakia, «Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzea erregulatuko duen udal Ordenantza» onartzen zuena Jarraian, Ordenantzan testu osoa argitaratzen da, Toki-Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Erabaki hau behinbetirakoa da eta bere aurka helegite kontentzioso-administratiboa tarteratu daiteke, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboko Salaren aurrean, erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAn argitaratzen den biharamonetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

Zizurkil, 2004ko azaroaren 3a.—M.ª Angeles Lazkano Larrañaga, Alkatea.

(678) (10326)

*Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzea erregulatuko duen udal ordenantza.*

*1. artikulua. Aplikatu beharreko araudia*

Ordenantza hau honako legeek eman eskumenei jarraiki arautu da: Toki-administrazioko gobernuaren modernizazioaren abenduko 16ko 57/2003 legearekin loturiko 1985eko Toki administrazioaren araubideko oinarrien legea, 1986ko Toki korporazioen ondasun- arautegia, 1986ko Toki korporazioen erregimen juridikoa eta antolamendu araudia eta 1955eko Toki korporazioen zerbitzu- araudia.

*2. artikulua. Helburua.*

Bide publikoan jartzen diren terraza eta mahaitxoen eta batekin nola bestearekin batera jartzen diren instalazioen, hala nola, eguzkitakoen, erlaitzen, eguzki-oihalen, alboetako babesen, argindarraren eta abarren erregimen juridikoa eta teknikoa xedatzea da Ordenantza honen helburua.

*3. artikulua. Definizioa.*

Aurreko artikuluan aipatutakoari jarraituz, terrazak eta mahaiak esatean honakoa ulertu behar da: Bere jarduera nagusian aritzeko udalaren baimena duen ostalaritza alorreko edozein jardueraren osagarri diren, mahai eta aulki multzoa eta behin-behineko instalazio finko edo mugikorrak.

*4. artikulua. Aurretik lizentzia izatea beharrezkoa da*

Aipatu bide publikoko instalazioek erabilera arrunt eta bereziko kategoria juridikoa dute eta jarri aurretik beharrezkoa da udalaren baimena izatea. Baimena Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera emango da.

*5. artikulua. Lizentzia izan beharretik salbuetsita daudenak.*

Nahiz eta 3. artikuluan aipatutako definizioaren baitakoak izan instalazioak, ordenantza honek arautzen duen lizentzia ez da ondorengo kasu hauetan beharko:

a) Udalaren emakida administratibo baten babesean egin jardueren osagarri direnean, jabari publikoko ondasun edo ondare jabetza direnetan kokaturik daudelako.

## AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

*Anuncio*

Finalizado el plazo de información pública sin que se haya presentado reclamación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo inicial tomado por el Pleno Municipal en Sesión celebrada el día 30 de agosto de 2004 por el que se aprobaba la «Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores», cuyo texto íntegro se publica en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Este acuerdo es definitivo y contra el mismo podrá interponerse recurso contencioso- administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Zizurkil, a 3 de noviembre de 2004.—La Alcalde, M.ª Angeles Lazkano Larrañaga.

(678) (10326)

*Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores.*

*Artículo 1. Normativa de aplicación.*

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades otorgadas por la Ley de Bases del Régimen Local de 1985, en relación con la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del gobierno local, el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales de 1986, el Reglamento de Organización y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales de 1986 y el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales de 1955.

*Artículo 2. Objeto.*

Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación sobre la vía pública de terrazas y veladores e instalaciones complementarias de unas y otros, tales como parasoles, pescantes, toldos, protecciones laterales, alumbrado etc.

*Artículo 3. Definición.*

A efectos de lo señalado en el artículo anterior, se entienden como terrazas y veladores el conjunto de mesas y sillas e instalaciones provisionales, fijas o móviles que sirven de complemento temporal a una actividad del ramo de la hostelería que disponga de autorización municipal para el ejercicio de la actividad principal.

*Artículo 4. Necesidad de obtención de previa licencia.*

Las citadas instalaciones de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.

*Artículo 5. Exclusión de la necesidad de licencia previa.*

La necesidad de obtener la licencia regulada por la presente Ordenanza no será de aplicación a aquellas instalaciones que, aún incluidas en la definición formulada en el artículo 3, se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

a) Cuando sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal, por estar enclavadas en bienes de dominio público o patrimoniales.

b) Jai ekitaldien baitan egiten diren behin-behineko jarduerak, eskuduneko Udal organoak ezarri egutegi eta moduari jarraiki egiten direnak.

*6. artikulua. Instalazioa baimenduko den eremuen izaera*

Jabetza publikoko edo pribatuko eta erabilera publikoko ondare izaera duten eremuetan eman ahalko da terrazak eta mahaitxoak jartzeko lizentzia.

*7. artikulua. Lizentzia ukatzeko arrazoiak*

Bidea, kokapena, bide segurtasuna, herri lanak edo beste arrazoiren bat tarteko interes publikoak eskatzen duen kasuetan eskumeneko udal organoak mahaitxoak, terrazak eta elementu laguntzaileak jartzeko baimena uka dezake.

*8. artikulua. Bide publikoaren okupatzea.*

Bide publikoan mahaitxoak eta terrazak jartzeko baimenak kasuan kasuan aztertu eta emango dira, dena den, honako baldintza orokorrak denek bete beharko dituzte:

a) Beti, gutxienez 1,80 metroko zabalera duen tartea utzi behar da inolako trabarik gabe eta etxebizitzeetarako eta lokaletarako sarbidea errespetatu egin beharko da.

b) Plazetan edo mugarik gabeko luzera duten eremu irekietan ezingo da plazaren edo eremu irekiaren erdia baino gehiago hartu luzeran eta zabalera ezingo da plazaren edo eremu irekiaren herena baino handiago izan.

c) Zabalean 5 metro baino gutxiago duten espaloietan instalazioak ezingo du jarduera nagusia kokatuta dagoen eraikinaren luzera gainditu ondokoek idatziz baimena ematen ez badute.

*9. artikulua. Lizentzia eskaera.*

1. Artikulu honetan aipatzen diren agiriez gain interesdunak alkate jaun/andereari zuzendutako eskaera aurkeztu beharko du. Eskaeran honako datuak jarri beharko ditu:

I. Eskatzailearen izen-abizenak.

II. Datu pertsonalak: Helbidea, telefonoa eta N.A.

III. Jardueraren izena eta kokapena.

IV. Jardueraren datuak (Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, I.F.K. e.a.).

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko ditu interesdunak:

I. Udalak emandako jarduera lizentzia (irekitze edota instalazio lizentzia).

II. Ondoko lokalen jabeen baimena behar den kasuetan.

III. Kokapen planoa, gutxienez 1:100 eskalan, edo krokis akotatua. Instalazioak hartuko duen azalera eta mahai, aulki eta alboetako babesgailuak nola jarrito diren zehaztuko da. Halaber, libre geratzen diren eremuen zabalera eta luzera zein den jarri beharko da eta edozein hiri elementu (trafiko seinaleak, arbolak, aulkiak, zutabeak, hiri-altzariak) eta udal zerbitzuetan izan dezaketen eragina (ura, saneamendua, gasa) aipatu beharko da.

Dena den, instalazioak irisgarritasuna bermatu behar du.

b) Actividades temporales, ejercidas con motivo de actos festivos populares, dentro del calendario y formas establecidas por el Organo Municipal competente.

*Artículo 6. Carácter de los espacios en que se posibilita la instalación.*

Se podrá conceder licencia para la instalación de terrazas y veladores en aquellos espacios que tengan el carácter de bienes de dominio público o privado y uso público.

*Artículo 7. Motivos de denegación de la licencia.*

El Organo Municipal competente podrá no autorizar la instalación de veladores, terrazas y sus elementos auxiliares, en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón del trazado, situación, seguridad viaria, obras públicas o cualesquiera otras circunstancias.

*Artículo 8. Ocupación de la vía pública.*

Las solicitudes para la instalación de veladores y terrazas en la vía pública se resolverán según las peculiaridades de cada caso en concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

a) Se instalarán de manera que quede siempre una zona libre de todo obstáculo con un ancho mínimo de 1,80 metros y se deberá garantizar el acceso a las viviendas y locales existentes.

b) En las plazas o espacios libres la longitud máxima ininterrumpida no podrá sobrepasar la mitad de la plaza o espacio libre y la anchura no sobrepasará un tercio de la plaza o espacio libre.

c) En caso de aceras de menos de 5 metros de ancho el desarrollo longitudinal máximo de la instalación no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo autorización por escrito de los colindantes de éste.

*Artículo 9. Solicitud de licencia.*

1. El/la interesado/a deberá presentar en el Registro General, acompañado de los documentos señalados en este artículo, la correspondiente solicitud dirigida al/a la Sr./Alcalde/sa, en la que hará constar:

I. Nombre y apellidos del/la solicitante.

II. Datos personales relativos a domicilio, teléfono y DNI.

III. Nombre y emplazamiento de la actividad.

IV. Datos de la actividad (Impuesto de Actividades Económicas, CIF, etc.).

2. Junto con la solicitud el/la interesado/a deberá presentar los siguientes documentos:

I. Acreditación de disponer de autorización municipal para el ejercicio de la actividad (licencia de instalación y/o apertura).

II. Acreditación de que se dispone de la autorización de los locales adyacentes en los supuestos en los que ésta se requiera.

III. Plano de emplazamiento a escala no inferior a 1:100, o croquis acotado, con detalle suficiente de la superficie ocupada por la instalación, así como la distribución de mesas y sillas, protecciones laterales, etc. Asimismo deberá indicarse la longitud de la fachada y del ancho de los espacios libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier elemento urbano (señales de tráfico, árboles, bancos, columnas, mobiliario urbano, etc.) y posibles afecciones a servicios municipales (aguas, saneamiento, gas).

En cualquier caso, la instalación deberá dejar paso en condiciones de accesibilidad.

*10. artikulua. Prezio publikoa.*

Lizentziaren jabeak udalari dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dio, Ordenantza Fiskalak xedatutako kantitatea eta ordenantzak adierazi bezala. Baimenaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 15 eguneko apearen barruan ordaindu behar du eta ezingo du instalazioa ezarri ordaindu aurretik. Epe hori pasa eta interesdunak ordaintzen ez badu baimenak balioa galduko du eta berriro eskatu egin beharko du instalazioa jarri ahal izateko.

*11. artikulua. Urtekoa.*

Terraza eta mahaitxoak jartzea urte guztirako baimenduko da.

*12. artikulua. Ordutegia.*

1. Jarduera nagusiak duen ordutegia ez da kontuan hartuko terrazen edo mahaitxoen ordutegia finkatzeko orduan. Goizeko 9,30etik gauerdiko hamabiak arte erabili ahalko dira eta ostiral, larunbat eta festa bezperetan ordu bete gehiagoz luza daiteke.

2. Herriko jaietan eta egun berezietan eskumeneko udal organoak ordutegi malguagoa jar dezake herri guztian edo herriko eremu zehatz batean.

*13. artikulua. Instalazioa kentzea.*

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitu ondoren mahaiak, aulkiak eta erabilitako objektuak jaso eta lokalaren barnean gorde beharko ditu titularrak.

2. Baimendutako material guztia bildu ondoren lizentziaren titularraren egitekoa izango da okupatutako eremua garbi uztea.

*14. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak*

1. Betebehar orokorretan eta Ordenantza honek xedatzen duenetan eraginik izan gabe, okupatutako lurra, instalazioa eta elementu laguntzileen garbitasun, segurtasun eta apaingarriez arduratzea instalazioaren titularraren eginbeharra izango da eta horretarako beharrezko elementuak jarri beharko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak e.a

2. Kanpoan, barrak, bozgorailuak edo musika tresnak jartzea debekatuta dago.

*15. artikulua. Arau-hausteak.*

1. Ordenantza honen arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Arau-hauste arinak:

a) Bizilagunei eragozpenak sortzea.

b) Terrazak edo mahaitxoek hartzen duten lekua behar bezain garbi ez izatea.

c) Bide publikotik kendutakoan terrazak edo mahaitxoak hartutako lekua behar bezain garbi ez uztea.

d) Lizentziak baimentzen ez duen lekuren bat hartzea.

e) Lizentziak baimentzen duen baino mahai, aulki edo objektu gehiago jartzea.

f) Musika tresnak edo bozgorailuak jartzea.

g) Ordenantza honek ezartzen duen ordutegia ez betetzea.

*Artículo 10. Precio público.*

El/la titular de la licencia abonará al Ayuntamiento el precio público que pudiera corresponderle en la cuantía y forma establecida por la Ordenanza Fiscal. Dicho precio deberá de ser abonado en el plazo de 15 días, a contar desde la notificación del otorgamiento de la licencia, sin que el/la titular de la misma pueda proceder a la instalación autorizada antes del abono del mismo. Transcurrido dicho plazo sin efectuarse el abono, la autorización caducará, por lo que el/la interesado/a deberá, en su caso, solicitar nueva licencia para poder efectuar la instalación.

*Artículo 11. Anual.*

La instalación de terrazas y veladores será autorizada para todo el año.

*Artículo 12. Horario.*

1. Con independencia del horario que tenga autorizada la actividad principal, la utilización de los veladores o terrazas queda limitado al período de tiempo comprendido entre las 9,30 y las 24 horas, prolongándose una hora más en viernes, sábados y vísperas de fiesta.

2. El Organo Municipal competente podrá autorizar excepcionalmente un horario de retirada más flexible, bien para todo el municipio o bien para una determinada zona del mismo, durante las fiestas patronales y en otras fechas de significación especial.

*Artículo 13. Retirada de la instalación.*

1. Finalizado el horario establecido en el artículo anterior las mesas, sillas y demás objetos utilizados en las mismas deberán estar recogidas y guardadas dentro del local.

2. Una vez retirado el material autorizado corresponderá al/ a la titular de la licencia dejar la zona ocupada en perfecto estado de limpieza.

*Artículo 14. Obligaciones del titular de la instalación.*

1. Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se derivan de la aplicación de la presente Ordenanza, el/la titular de la instalación queda obligado/a a mantener tanto el suelo, cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc.

2. Se prohíbe la instalación de barras exteriores, altavoces o aparatos musicales.

*Artículo 15. Infracciones.*

1. Las infracciones administrativas por incumplimiento de las prescripciones de esta Ordenanza se clasifican en leves, graves y muy graves.

2. Son infracciones leves:

a) Causar molestias al vecindario.

b) No mantener el espacio ocupado por la terraza o velador en las debidas condiciones de limpieza.

c) No dejar en perfecto estado de limpieza el espacio ocupado por la terraza o velador una vez retirado de la vía pública.

d) Ocupar un espacio distinto al permitido por la licencia.

e) Instalar un número de mesas y sillas, u otros objetos, no contemplados por la licencia.

f) Instalar aparatos de música o altavoces.

g) El incumplimiento del horario establecido en la presente Ordenanza.

h) Ordenantza honetan jasotzen den aginduren bat edo lizentzian agertzen den baldintzaren bat ez betetzea.

3. Denboraldi batean bi arau-hauste arin edo gehiago eginez gero larritzat joko da

4. Arau-hauste oso larriak:

a) Denboraldi batean zehar lau arau-hauste arin edo gehiago egitea.

b) Ordenantza honek arautzen duenaren aprobetxamendua udalaren derrigorrezko baimenik gabe.

*16. artikulua. Zigorrak.*

1. Arau-hauste arinengatik 300 eurorainoko isunak jar daitezke, arau-haustearen garrantziaren arabera zehaztuko da isuna.

2. Arau-hauste larriengatik 600 eurorainoko isunak jar daitezke, arau-haustearen garrantziaren arabera zehaztuko da isunaren zenbatekoa.

3. Arau-hauste oso larriengatik 1.000 eurorainoko isunak jar daitezke eta terraza denboraldi guztirako ixteko agindua ere eman daiteke.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.*

Ordenantza hau indarrean sartu aurretiko lizentziek eman zireneko baldintzen arabera jardungo dute.

*Bigarrena.*

Ordenantza hau indarrean sartu aurreko hilabetearen barruan aurkezten diren eskaerak Ordenantza honek xedatzen duenaren arabera ebatziko dira.

AZKEN XEDAPENA

Testu osoa Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita hamabost lenegun pasa ondoren sartuko da indarrean ordenantza hau.

h) Cualquier otro incumplimiento de las condiciones de licencia o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza.

3. Son infracciones graves la comisión de dos o más infracciones leves en la temporada.

4. Son infracciones muy graves:

a) La comisión de cuatro o más infracciones leves en la temporada.

b) El aprovechamiento regulado de esta Ordenanza sin la preceptiva licencia municipal.

*Artículo 16. Sanciones.*

1. Las infracciones leves podrán sancionarse con multa de hasta 300 euros que se graduará en función de la gravedad de la infracción.

2. Las infracciones graves podrán sancionarse con multa de hasta 600 euros que se graduará en función de la gravedad de la infracción.

3. Las infracciones muy graves podrán sancionarse con multa de hasta 1.000 euros y clausura de la terraza por toda la temporada.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*

Las licencias concedidas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ordenanza se ajustarán a los términos en que fueron otorgadas.

*Segunda.*

Las solicitudes presentadas un mes antes de su entrada en vigor se resolverán conforme a lo estipulado en la presente Ordenanza.

DISPOSICION FINAL.

La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

## ZUMAIAKO UDALA

*Iragarkia*

2.004. urteko zabor bilketako hirugarren hiruhilabeteko eta azokari dagokion laugarren hiruhilabeteko erroldak onartu direnez, jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Ogasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14.1 artikuluan agindutakoa betetzearren. Era berean, Gipuzkoako Herrialdeko Zergabilketa Erregelamendua onesten duen apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren 78. Artikuluan galdatzen den borondatezko zergabilketaren epea eta modua adierazten dira. Hori guztia ondoko arau hauen arabera:

*a) Ikusgai dagoen lekua:* Udaletxeko bulegoetan.

*b) Aztertzeko epea:* Hilabetea, datatik datara kontatuta, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Anuncio*

Aprobados los padrones trimestrales de Recogida de Basuras y Mercado correspondientes al tercer y cuarto trimestre del 2004 respectivamente, se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 14.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa. Asímismo se señala el plazo y forma de recaudación voluntaria que requiere el art. 78 del Decreto Foral 27/1991, del 9 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Todo ello conforme a las siguientes reglas:

*a) Lugar donde está de manifiesto:* En las oficinas municipales.

*b) Plazo para examinarlo:* Un mes contado de fecha a fecha, a partir del siguiente día hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.